

Lehen hezkuntzako
bigarren ziklorako
Unitate
didaktikoa



Altxa ahotsa irakasleen alde

#MilaMilioiAhots

Iraupena: 3 saio.

1. saioa: 1. eta 2. gelaxkak. **2. saioa:** 3., 4. eta 5. gelaxkak. **3. saioa:** 6. gelaxka.

Materialak: Jokoa formatu fisikoan edo digitalean dagoen taula-joko baten bidez eramango da aurrera (Genially).

- **1. saioa:** Irakasleak eta ikasleek aukeratuko dute zer material erabili lehen saioan mikrofono bat edo eskulan bat egiteko. Gogoan izan: garrantzitsua izango da materialak birziklatutakoak eta berrerabilgarriak izatea!
- **2. saioa:** Bigarren saiorako materialak jokoaren 3., 4. eta 5. gelaxketan zehaztuta egongo dira.
- **3. saioa:** Hirugarren saiorako materialak "Mugi zaitetz eta ahotsa altxa!" jardueran daude zehaztuta eta horiekin albiste bat egingo dute.
- A3an inprimatzeko taula-jokoa + Elementu bakoitzeko jokorako fitxa.
- Puzzlea.

Helburuak: 1. Irakasleek hezkuntzan duten funtsezko eginkizunaren **garrantzia ikusaraztea**.

2. Hegoaldeko eta ipar globaleko irakasleen **egoeraren arteko ezberdintasunak ezagutzea**.

3. Hezkuntzarako eskubidea beste eskubide batzuetarako giltzarri gisa balioestea, 2030 Agendan-

4. GIHan jasota dagoena, hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzeko eta pertsona guztientzat bitzita osoan ikasteko aukerak sustatzeko.

4. Hezkuntza ezberdintasunei buruzko **kontzientzia kritikoak sortzea** eta banakako eta taldeko mobilizazioa sustatzea.

5. Albiste bat egitea #MilaMilioiAhots horiek altxatzeko eta herritarrak irakasleen funtsezko zereginaren garrantziaz eta kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubideaz sentsibilizatzeko (4.GIHa). Jarduera hori gero zure hiriko kaleetan edo zure ikastetxearen barruan partekatu ahal izango da.



Ohar garrantzitsua

Aurten HAMAREN lanketa errazteko asmoz joko bat prestatu dugu. Hau zure eta zure ikasleen errealitatearen arabera landu ahal izateko pentsatuta dago. Joko hau hainbat gelaxkekin aurkezten da, osoa egiteko edo zure gelan hobeto egokitzen diren gelaxkak lantzeko aukera emango dizutenak.

Lasai! Denboraz larri bazabiltza eta proposamen osoa egin ezin duzula ikusten baduzu, aukera desberdinak daude, agian zuri ere konbinazio hobea bururatuko zaizu!

Hemen egokitzeko gaude, azkenaldi honetan asko ikasi baitugu. Beraz, honako hau proposatzen dizugu:

Jolasak dituen gelaxka guztiak lantzea: PDF honetan jasotzen da jolasa hiru saiotan lantzeko proposamena. Hurrengo orrialdea irakurri (Lehenengo, jolasaren arauak irakasleentzat jarraibideak).

Lantzeko gelaxka batzuk aukeratu (gelaxka batetik bestera igartzeko aukera emango dizun eskailera). Hurrengo orrialdea irakurri (Lehenengo, jolasaren arauak irakasleentzat jarraibideak).

Zuzenean mobilizazio jarduera landu (proposamen guztietan azkeneko gelaxka). Kasu horretan ez duzu taula erabiliko, proposamena zuzenean planteatuko zenuke. Oraingoan, egunkariko albiste bat idaztea da, aurretik sentsibilizatu ondoren.



1. eta 2. gelaxkak: Motiaktibatu! eta eskulana

Iedozein aukera dela ere, ikasleei lehen gelaxka irakurtzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Izan ere, horrek ikasleak testuinguruan kokatu eta motibatzen ditu jarraian proposatuko duzunerako, eta soilik 5 minutuko kontua da. Eskulanerako jarduera artistiko bat proposatzen dizugu, beste ikasgaietan modu zeharkakoan garatu ahalko duzuna. Ideia honako hau da: eskulana baliagarria izatea ondoren 6. gelaxkarako. Egiteko denborarik ez baduzu, 3. eranskineko eskailera hartu eta zure ikasleekin batera salto egin sentsibilizaziorako 3., 4. eta 5. gelaxketara.



3., 4. eta 5. gelaxkak: Konexio globala eta irakasleen irudia

Hemen ere aukera dezakezu zein gelaxka landu nahi dituzun; erabili 3. eranskineko eskailera nahi duzuna saltatzeko. Ikasleak aurtengo gaiari buruz sentsibilizatzeko gelaxkak dira: **irakasleen funtsezko papera kalitatezko hezkuntza lortzeko.**



6. gelaxka: Mugitzaitez eta ahotsa altxa!

Amaiera da eta garrantzitsua da; azken produktu hori gure ikastetxean edo kaleetan egingo dugun mobilizazio ekitaldira eramango dugu. Kasu honetan, **egunkariko albiste** bat idatziko dugu. Gelaxka horretara zuzenean joanez gero, Sarrera dokumentua irakurtzea proposatzen dizugu. Horrek, aurtengo gaiari buruzko informazio guztia emango dizu. Halaber, albistea idatzi aurretik, ikasgelan 3. gelaxkaren amaierako galderak erantzutea eta 8. eranskineko Kahoota egitea proposatzen dizugu.



Lehenengo, jokoaren arauak

Irakasleentzat jarraibideak

Mahai joko batean oinarritutako HAMA 2022ren proposamena aurkezten dizuegu. **Jarduera honetan, ikasleek gelaxkak gaingitu beharko dituzte.** Gelaxka hauetan, hainbat dinamika proposatzen dira: batetik, gura gai nagusiarekin lotutakoak, **kalitatezkoa, inklusiboa eta bidezkoa den hezkuntza berrmatzea eta pertsona guztientzat bizitza osoan zehar ikasteko aukerak sustatzea (4. GIHa)**, eta bestetik, HAMA 2022ren gaia, **irakasleen funtsezko papera**, #MilaMilioiAhots lelopean.

Jolasteko, **inprimatu daitekeen taula** izango duzue 1. eranskinean, eta, aldi berean, dinamikoagoa den online bertsioa izango duzue honako esteka honetan: <https://acortar.link/JyMjxA>. Ikasleek gelaxka bat gaingitzen dutenean, **2. eranskinean** aurki ditzakezuen puzzlearen 6 piezetako bat emango zaio ikasgela osoari, azken gelaxkara iritsi eta puzzlea osatu arte.

Pieza horietako bakoitzak balioko du irakasleen ahotsa altxatzeko behar den elementua lortzeko, aurrera egiten jarraitzeko lortu behar duten gako bat balitzan.

Aurtengo elementu sinboliko gisa, mikrofono bat osatuko da puzzlearen pieza guztiekin.

Irakasleei ahotsa ematea bilatzen du mikrofonoak ikasleen hezkuntza prozesuan funtsezkoak direnak eta iaz hezkuntza eskubidearen alde, eskolara joan gabe gelditu ziren 1.500 milioi haur eta nerabe horien gainetik ahotsa altxatu zutenak, kontuan hartuta gaur egunean ere leku ezberdinetan eskolak itxita jarraitzen dutela.

Lehen hezkuntzako bigarren zikloan (albistea) puzzlearen piezak banatuko dira; horietariko bakoitzean, mikrofonoaren zati bat agertuko da, baita larriz idatzitako "W" bat. Sei "W" horiek kazetaritzan albisteak sortzeko erabiltzen diren teknikak adierazten dituzte. Horiei esker, ikasleak kazetari objektibo, kritikoa eta zorrotzak bihurtuko dira jolasean.

Jarraian, puzzlearen piezak daude zehaztuta:

1. gelaxka: Motiaktibatu!

1. pieza emango da: **W Who (Nor)** Kontatuko dugun errealitatearen pertsona protagonistak: irakasleak.

2. gelaxka: Eskulana

2. pieza emango da: **W What (Zer gertatu zen)** Ideiak, ekintzak, gertakariak, gertaerak... kontatuko dugun errealitatearen inguruan zer azaldu nahi dudana.

3. gelaxka: Konexio globala

3. pieza emango da: **W Where (Non)**. Kontatuko dugun errealitatea zer espazio edo lekutan gertatzen den.

4. gelaxka: Konexio globala

4. pieza emango da: **W When (Noiz)**. Kontatuko dugun errealitatea zer denbora-espazio zehaztuz gertatzen den.

5. gelaxka: Irakaslearen silueta

5. pieza emango da **W Why (Zergatik)**. Kontatuko dugun errealitatea gertatzeko zer arrazoi, kausa edo aurrekari dauden.

6. gelaxka: Mugi zaitez eta altxa ahotsa!

6. pieza emango da: **W HoW (Nola gertatu zen)**. Kontatuko dugun errealitatea zer egoeratan gertatu zen.

Taula ezberdinak proposatzen dira hezkuntza ziklo bakoitzeko, hau da, 5 taula (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa, Bigarren Hezkuntza eta Adineko Hezkuntza), eta horietako bakoitzean hedabide ezberdin batean oinarrituko gara lan egiteko.

Komunikabide bakoitzari esleitutako dinamika hezkuntza zikloaren arabera pentsatuta daude, baina

beste hedabide batekin lan egin nahi baduzu, proposatutako dinamika egokitu behar dituzu, besterik ez.

Honako hauek izango dira komunikabideak:



Haur Hezkuntza
Lipduba



Lehen Hezkuntzako
lehenengo zikloa
Telebista



Lehen Hezkuntzako
bigarren zikloa
Egunkaria



Lehen Hezkuntzako
hirugarren zikloa
Podcasta



Bigarren Hezkuntza eta
Adineko Hezkuntza
Bideo aldarrikatzailea

Aurten **komunikabideen eta sare sozialen** bidez egingo dugu lan, hezkuntzarako kanal garrantzitsuak direlako eta hezkuntzan eragin handia dutelako.

Ikasleei, irakasleei eta gizarteari balioko digute hezkuntza prozesuan irakasleek duten funtsezko zereginari buruz hitz egiteko.

Pertsonok informazioa jaso, aztertu eta harekin ikasten dugu, munduko gure esperientzia ere handitzen dugu, eta pixkanaka gure gizarte eta kultura balioak aldatzen ari gara, eta, horregatik, komunikabideen funtzio horrek gizartea homogeneizatzen lagun dezake, pentsaera eta bizimodu uniformeak lortzen, edo guztiz kontrarioak.

Komunikabideek hainbat ikuspegitik mantentzen dituzte herritarren informatuta, eta, neurri handi batean, gure gizartearen demokrazia mantentzen laguntzen dute, informazio politikoa eta justizia soziala helarazteko gure muga barruan eta kanpoan.

Era berean, erraztu egiten dute familia, lagun eta gertuko pertsonen arteko harremana (txateatu egiten dugu, beste pertsona batzuekin bizipenak partekatzen ditugu sareen bidez, telebista ikusten dugu edo zinemara joaten gara, programa jakin bati buruz hitz egiten dugu...).

Ekintza honetan, irakasleen funtsezko papera izango da ardatz nagusia, beste errealitateak ezagutzeko lotura globala sustatzeko.

Jolasa 3 saiotan dago banatuta, eta honela landuko dira:

Lehenengo saioa

Lehenengo saioan 1. gelaxka eta 2. gelaxka landuko dira. Lehen horrek jolaserako jarraibideak ditu, eta bigarrenak azkeneko gelaxkarako (Mugi zaitetz eta ahotsa altxa!) baliagarria izango den eskulan bat proposatzen du.

Horregatik 2. gelaxka ikasgai nagusia ez den beste batean lantzea proposatzen dugu (plastika, *arts* edo egokia kontsideratzen den beste edozein ikasgaitan), baita irakasleak egokia kontsideratzen duen espazioan aurrera eramatea ere, **beste irakasle batzuk HAMA 2022aren konpromisoa hartzeko**, edota etxean, familiak inplikatu ahal izateko.

Garrantzitsua da gogoratzea irakasleak aurretik prestatuak izan beharko dituela eskulanerako (2. gelaxka) beharrezkoak diren materialak.

Bigarren saioa

Bigarren saioan 3., 4. eta 5. gelaxkak landuko dira. Gelaxka horietan hainbat jarduera daude, eta horiek ikasleei lagunduko diete 4. GIHa zer garrantzia duen

ezagutzen eta hausnartzen. Zehazki, irakasleek **kalitatezko hezkuntzarako eskubidea** lortzeko duten funtsezko eginkizunari buruz. Gelaxka horietan, hezkuntzarako eskubidean oinarritutako Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea (HGHE) sustatuko da.

Hirugarren saioa

Hirugarren saioan, 6. gelaxka landuko da: “Mugi zaitetz eta ahotsa altxa!”. Gelaxka hori da jolasaren zati garrantzitsuen, bertan proposatzen baita edukia sortzea hezkuntza etapa bakoitzerako zehaztutako komunikabideetan. Horretarako, ikasleek albiste bat idatzi beharko dute **irakasleen funtsezko paperaren inguruan eta 4. GIHa betetzearen** inguruan.

Gogoratu Unitate Didaktikoen lehen eranskinean taula bat aurkituko duzuela jolasean ibiltzeko, eta, gainera, on line bertsio dinamikoago bat prestatu dugu Genially plataformaren bidez. Hori ikasgelan proiektatzeko taula interaktibo moduan erabil daiteke. Esteka honetan aurkituko duzue: <https://acortar.link/JyMjxA>. Taula inprimatzea erabakitzen baduzue (A3 tamainan), 3. eranskinean jolasaren fitxa bat duzue eskura, jolasean aurrera egiteko.

Gogoan izan paper birziklatuan inprimatzea, ingurumenean ahalik eta kalte gutxien egiteko.

